



MAIDER JAUREGI

## «Denok dugu eskubidea ama izateko, baina eskubidea, aukera bat da»

Arantxa Iturbek aspaldi urratu zituen irratigintzako eta literaturgintzako bideak. Bere *Ai ama!* liburuan oinarritutako antzezlana aurkeztuko dute gaur gauean Tolosan

### Maidar Jauregi

Pozik batzuetan, etsita bestetan, emozioz beteta askotan eta triste zenbaitetan. Hamaika aldiz esan du Arantxa Iturbek «Ai ama!». Izenburu horixe eman zion bere azken liburuari, etan horretan oinarritua da, Hika taldeak gaur Leidor zineman antzeztuko duen obra. Idazleak antzezlana gain, beste hamai-kontu izan du hizpide, EGUÑEROREKIN elkartu denean.

Urte asko daramazu Tolosan bizitzen, baina izaten alegi-rra zaitugu.

Bederatzi urte bete arte Alegian bizi izan nintzen. Urte gutxi eman nituen bertan, baina haurtzaroko oroitzapen politik ditut.

**Txikikitat izan duzu idaztea eta irakurtzea gustuko, ezta?**

Bai. Gogoan dut, nola gauean irakurri egin nahi izaten nuen; ama gelara etortzen zitzaidan, utzi egin behar nuela eta argia itzaltzeko esanaz. Idazteari dagokionez ere, gutun bat ez bazen olerki bat, beti zerbait idatzi behar izaten nuen.

**Literatur munduan sariak jasotzen ere garaiz hasi zinen.**

Sei urte nituela, lehiaketa batean lehen saria irabazi nuen. Tolosan bertan, Beotibar pilotalekuan jaso nuen.

**Eta egun hartan esan zenuen, lehendabiziko aldiz, kazetari-tza ikasi nahi zenuela.**

Heldua izatean zer izan nahi nuen galdetu zidan batek, eta nik idazle izan nahi nuela erantzun. Hori ezin zela ikasi, eta idaztearekin lotura zenez, kazetaritza ikas nezakeela esan zidan. Handik aurrera, egin ar-tekto bakerik ez nuen izan.

**1992an argitaratu zenuen zeure lehen liburua.**

### SOSLAIA

## Idazle, irradi esatari, eta ama

**M. Jauregi.** Kaskagorrra, baina bihozbera; zenbait gauza di-da egin beharrekoa, baina beste zenbait ongi pentsatu ondoren erabakitzen dituen. Halakoa da Arantxa Iturbe alegiarra.

Bederatzi urterekin Alegiatik Tolosara joan zen bizitzera. Eta handik, Iruñeara. Nafarroako hiriburuan egin zituen, hain justu, kazetari-tza ikasketak. Hantxe hasi zen, komunikabideen munduan lehen urratsak ematen.

Idazle izan nahi zuen, eta idazle da. Idazle, eta irradi esatari. Irratiko lanbide arrunt bat baino zerbait gehiago da Iturberentzat. Urteetan *Goizean behin* saioko aurkezle, irradi-nobela bat egiten ari da orain. Idazle, esatari eta ama. Ama bakarrik ez, baina ama ere bada Arantxa Iturbe, eta harro dago.

Bai. Irratiko lankideek zirikatatu egin ninduten, lehiaketaren batean aurkeztu beharko nuela esanaz. Hala, batean aurkeztu eta lehen saria irabazi nuen. Hurrena, bigarren lan batekin beste lehiaketa batean aurkeztu, eta han ere nire lana saritua izan zen. Geroago, enkarguz, ipuin batzuk egiteko aukera eskaini zidaten, eta haiek egitean, Xabier Mendigurenek ipuin guztiak bildu eta argitaratzea merezi zuela esan zidan.

**Idazmolde arin eta freskoari eutsi diozu beti.**

Horixe da gehien gustatzen zaidana. Ez naiz jarri dotore eta erretoriko zalea.

**Irratiko jardunak badu horretan eraginik?**

Neurri batean, izan dezake. Baina horrez gain, irakurtzea gustatzen zaidan moduan idazten dut. Zuzena izaten saiatzen naiz. Irratiko eragina antzeman daiteke, baina izaerak eta estiloak ere badu eraginik. Gauzak di-da egitea gustatzen zait; halakoa naiz. Neurri batean, aukera bat ere bada.

**Zerk bultzatzen zaitu idazte-  
ra?**

Nik ez dut idazle askok esan ohi duten bezala, idazteko beharra sentitzen. Askotan lanak enkarguz egiten ditut. Enkarguz ez bada, denbora librea dudanean idazten dut. Ondo pasatzen dut idazten edo irakurtzen. Niretzat idaztea zaletasun bat da; zaletasun maitagarri bat.

**Denbora asko daramazu irra-  
tiko esatari lanetan. Lanari as-**

ko eman diozula eta lanak asko eman dizula esan izan duzu.

Egia da; seguruenik, bidearekin asmatu egin nuelako. Zerbait egin eta ondo bukatzean sortzen den betetasunaren parekorik ez dago. Lanaren bidez une honetan ditudan lagunik onenak aurkitu ditut. Momentu on eta txar ugari pasatu dut errekin; ordu asko... Zerbait egiteak merezi izan duela uste dutuzuean sentitzen dena azaltzea oso zaila da.

**Hala eta guztiz ere, haurra izatean urtebeterako lan mundutik aldentzea erabaki zenuen.** Garaia zela erabaki nuen. Ondo pentsatuta hartutako erabakia izan zen, baina etxean geratzeko lana faltan sumatu nuen.

**Amatasunak sortutako sentimenduak azaldu beharrak bultzatu zituen *Ai ama!* liburua idaztera.**

Itota sentitzen nintzen. Sentimendu haiek azaldu behar nituen nolabait, eta liburua bukatzean, sekulako lasaitua hartu nuen.

**Batik bat amatasunaren alde-  
rik ezkorrenak isladatu zenituen liburuan.**

Inguruan alderdi onak bakarrik azaltzen zirela ikusi nuen, eta amatasunak, niretzat, behintzat, bestelakoak ere bazituen. Haietxek kontatzen saiatu nintzen. Amalaren aipatzen dudana bezala, nire txikia zoragarria da; zoragarriena, niretzat. Baina bata ez du bestea kentzen. Geroago, eta nik neure bizipena azaldu nahi nuen. Ezagutu ditut amatasunarekin hasieratik erabat zoriotsu izan direnak, baina ez da izan nire kasua. Denok dugu eskubidea ama izateko, baina eskubidea, aukera bat da. Hori defendatzen dut nik.

**Zure liburuan oinarritutako antzezlana eskainiko du gaur Hika taldeak. Nola hartu zenuen antzezlaren proposamena?**

Agurtzenea Intxaurreagatik deitu zidan. Hura ere ama izan berria zela eta irakurritako gauza askorekin ez zegoela ados aipatu, eta ama desberdinek haurdunaldia nola bizi duten kontatuz zerbait egitea proposatu zidan. Hasieran harritu egin ninduen, baina segituan konbentzitu ninduen. Elkarlanean aritu gara; nire ideian oinarrituz, bere ideia gauzatu dugu.

**Zer itxura hartu zenien lehen entsegua ikustearekin?**

Idatzitakoa eta ikusten ari nintzena desberdinak ziren. Antzerkian hitzak adina garrantzia dute argiek, soinuak... Bestalde, antzezelean eta zuzendariaren lana ikaragarria iruditu zitzaidan. Estreinuaren oso harrera ona izan zuen; ea gaur ere hala izaten den; merezi dute.